



2015

## LEHEN AUKERA PROGRAMA

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, EUSKADIKO ENPRESEK GAZTE  
LANGABEAK KONTRATATZEKOA

EBAZPENA, 2015EKO MARTXOAREN 25EKOA

EHAA, 2015/03/27

[www.lanbide.eus](http://www.lanbide.eus)

**LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK**

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LANERATZEA AKTIBATZEKO ZUZENDARITZA: [lehenaukera@lanbide.eus](mailto:lehenaukera@lanbide.eus)





## Xedea

Laguntza batzuen oinarriak eta erregulazioa ezartzea, euskal enpresek kontratatu ditzaten gazte langabeak, titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez dutenak, haien enplegagarritasuna hobetze aldera, lanbide-esperientzia lortu eta haien laneratzea sendotzearen bidez.





## Baliabide ekonomikoak

Praktika-kontratuen eta  
kontratu mugagabeen  
finantzaketa



**2015eko ordainketa-kreditua:**  
**2.499.930 €**  
**2016ko konpromiso-kreditua:**  
**2.200.070 €**  
**Guztira: 4.700.000 €**

Finantzaketa zentro laguntzaileek  
enplegu-eskaintzak biltzeko,  
erregistratzeko eta kudeatzeko



**2016ko ordainketa-kreditua:**  
**Guztira: 299.930 €**

**DIRU-LAGUNTZA,  
GUZTIRA  
LEHEN AUKERA:**

**4.999.930 €**





# Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

## ■ Praktiketako kontratuak

Diruz lagundu daitezkeen kontratuen **betebeharrak**:

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabe gazteek EAEko lantokietako lanpostuak betetzeko gauzatutako kontratuak izango dira.
- **2015eko azaroaren 30a baino lehen** hastea.
- Gutxienez **6 hilabete** iraungo du.
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
- Idatziz formalizatu beharko da, hauek zehaztuta: titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena, lanpostua eta urteko ordainsari gordina (3.2 c artikuluan ezarritako gutxienekoen arabera).
- **Enplegu-sorrera garbia** ekarri behar dute berekin, kontratatuko den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak batez beste duen langile kopuruarekiko. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horrekin enpresako langileen batez bestekoa igoko da.
- Senidetasunik eza 3.4a) artikulua arabera.

*Edonola ere, kontratazioek bat etorri beharko dute Langileen Estatutuarekin eta aplikatu daitezkeen gainerako araudiarekin.*





# Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

## ■ Kontratu mugagabeak

Diruz lagundu daitezkeen kontratuen **betebeharrak**:

- Gazteekin sinatutako kontratuetako lanpostuak EAEko lantokietan bete behar izatea.
- **2015eko azaroaren 30a baino lehen** hastea.
- Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
- Idatziz formalizatu beharko da, hauek zehaztuta: titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena, lanpostua eta urteko ordainsari gordina.
- **Enplegu-sorrera garbia** ekarri behar dute berekin, kontratatuko den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak langile kopuru osoarekiko. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horrekin enpresako langileen batez bestekoa igoko da.
- Senidetasunik eza 3.4a) artikulua araberakoa.

*Edonola ere, kontratazioek bat etorri beharko dute Langileen Estatutuarekin eta aplikatu daitezkeen gainerako araudiarekin.*





## Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

**Deialdiaren 4.3 eta 4.4 artikuluek araututako zentro kolaboratzaileek enplegu-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzea, baldin eta, azkenean, eta deialdi honen babesean, diruz lagundu daitezkeen kontratuak formalizatzen badira.**





# Enpresa eta erakunde onuradunak

## ■ Enpresak

**Enpresa pribatuak** (edozein dela ere haien forma juridikokoa), banako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, baldin eta hurrengo **baldintza** hauek betetzen badituzte:

- a) Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b) Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
- c) Enplegurik suntsitu ez izana deialdi honen bidez kontratatuko den eta diru-laguntzaren eskaeraren helburua den lanpostuan, kontratazio berriaren aurreko urtean, eta ez suntsitzea diruz lagundutako kontratazioak iraun bitartean.
- d) Enpresaren langileen legezko ordezkari (LLO) jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa dagoela. Enpresak eskaeran berriaz adierazi beharko du LLO duen ala ez.
- e) Ez egotea berreskuratze-agindu baten mende, Europar Batasunak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu komunarekin bateraezin gisa deklaratu ondoren.





## Enpresa eta erakunde onuradunak

### **Baldintza orokorrak, enpresa eta erakunde onuradunek bete beharrekoak:**

- a) Egunean egotea zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan.
- b) Erakunde eskatzailearen xedeak eta helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak bat etortzea gizonen eta emakumeen tratuanahiz aukera-berdintasunaren printzipioarekin.
- c) Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzeko zehapen administratibo edo penalik jaso ez izana, eta haiek eskuratzeko legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

### **Hurrengoek ezingo dute erakunde onuradun izan:**

- Erakunde autonomoek.
- Sozietate publikoek.
- Herri Administrazio baten menpeko elkarte edo erakundeek.
- Eskura jartzeko enpleguetarako ABLEak.

**Diru-laguntzak emateko** eta, hala badagokio, **ordaintzeko**, baldintza hau ere bete beharko da: amaiera ematea edozein itzultze- edo zehapen-prozedurari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasi eta izapidetzen ari bada.







# Enpresa onuradunen betebeharrak

1.- **Oro har**, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartuak, bere 50.2 artikuluan ezarritakoak.

**Bereziki**, ondorengoak:

- a) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.
- b) Lanbideri justifikatzea eginbeharrak eta baldintzak bete direla.
- c) Dagozkion egiaztatze-jardueren mende jartzea. Erakunde onuradunak gastuaren kontabilitate-erregistroa eduki behar du, kontabilitate-identifikazio bereziaz edo kontabilitate-kode egokiaz.
- d) Lanbideri jakinaraztea xede bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu izana.
- e) Lanbideri jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza aldatu izana.
- f) Lanbideri laguntza ematea egiaztatze-, segimendu- eta kontrol-prozeduretan.
- g) Lanbideri jakinaraztea izapidetze bidean dituen itzultze- edo zehapen-prozedurak.
- h) Beren-beregi jasotzea edo adieraztea Lanbideren eta Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa –2014-2020rako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren barrukoa– diruz lagundutako jarduketan komunikazio-, zabaltze-, edo argitalpen-material eta ekintza guztietan.
- i) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak.

2.- Kontratua amaitu ondoren, langileari ziurtagiri bat ematea, gutxienez hauek zehaztuko dituen: kontratuaren iraupena, lanpostua eta egindako lanak.

***Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, balio hauek izango dituen: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala.***





# Enpresa eta erakunde onuradunak

## ■ Zentro laguntzaileak

Hurrengo hauek gerta daitezke onuradun:

- Jarduera horiek gauzatzeko baimena dutenak, 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren babesean (2015eko otsailaren 2ko EHAA), bitartekotza-zerbitzua eskaintzerakoan, enplegu-eskaintzen kudeaketa eta erregistroari dagokionez bakarrik.
- Ondorengo erakunde hauek izendatu ahalko dira zentro laguntzaile, deialdi honi lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, baldin eta egoitza EAEn badute:
  - ▶ Unibertsitateak.
  - ▶ Lanbide heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
  - ▶ Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro eta erakunde laguntzaileak, 2014ko deialdiari dagozkion lanerako prestakuntza eta orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.
  - ▶ Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

I. ERANSKINA



Hilabete, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.





## Kontratatutako gazteek bete beharreko baldintzak

a) 16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.

b) Langabeak izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.

c) Ondoko titulazio hauetakoren bat edukitzea:

- ❑ Lizentziatura edo unibertsitateko gradua, Ingeniaritza, Arkitektura.
- ❑ Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa.
- ❑ Goi- edo erdi-mailako teknikaria, araututako lanbide heziketakoa edo berariazko lanbide heziketakoa. Bi titulu hauek ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
- ❑ Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
- ❑ Profesionaltasun-ziurtagiria.

Hautaketa-prozesuan **lehentasuna** emango zaie **Gazte Bermea Sistemako** datu-basean izena emanda dauden pertsoneri.





## Parte-hartzaileak hautatzeko prozedura

### ■ Enpresak

**Hautaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez egingo da.**

Gehienez ere, **hilabeteko** epea egongo da –diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik– **eskaintza kudeatzeko eskaera** aurkezteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulego batean edo baimendutako zentro laguntzaile batean (enplegu-eskaintzen kudeaketa). **IV. eranskina.**

Lanpostu-profil bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da, araututako inprimaki bidez.

Hautaketa-prozesuan **lehentasuna** emango zaie **Gazte Bermea Sistemako** datu-basean izena emanda dauden pertsoneri.

Kontratu hauek bakarrik lagundu daitezke diruz: eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsoneri egindakoak.






## Kontratatutako gaztea ordeztea


**Ordezkapenak**, soilik kontratua deuseztatuz gero probaldia ez gainditzeagatik, boluntarioki lanpostua uzteagatik, heriotzagatik edo baliaezintasunagatik.

**7 egun**  
kontratua iraungitzen  
denetik



**EGINGO DEN ORDEZKAPENA LANBIDERI  
JAKINARAZTEKO**

**15 egun**  
jakinarazpena egiten  
denetik



**BESTE PERTSONA BAT KONTRATATZEKO  
ETA LANBIDERI HAREN DATUAK  
HELARAZTEKO**

*Lan-kontratu berria formalizatuz gero, deialdi honetako 3. artikuluan eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu.*





# Diru-laguntzaren zenbatekoa

## ■ Enpresak

Praktiketako lan-kontratua  Titulazio akademikoaren arabera

Titulazio akademikoa	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak barne)	Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako
Goi-mailako titulazioa eta unibertsitate-gradua	18.000,00 €	4.500,00 €	4.950,00 €
Erdi-mailako titulazioa	15.200,00 €	3.800,00 €	4.180,00 €
Goi-mailako Heziketa Zikloak (LH II)	13.000,00 €	3.250,00 €	3.575,00 €
Maila Ertaineko Heziketa Zikloak (LH I) eta Profesionaltasun-ziurtagiria	11.200,00 €	2.800,00 €	3.080,00 €

## Kontratu mugagabea




Kontratazioaren 1. urteko soldataren kostuaren % 50, gehienez ere 6.700,00 €.

- ▶ Diru-laguntzen zenbateko horiek lanaldi osoko kontratuei buruzkoak dira eta, lanaldi partziala izanez gero, lanaldiaren proportzioan egokituko dira.
- ▶ Zenbatekoak % 10 gehituko dira kontratuak **emakumeek** sinatzen badituzte.

## ■ Zentro laguntzaileak

Eskaintza biltzea eta erregistratzea	120 euro
Eskaintza kudeatzea	80 euro





# Eskaerak aurkeztea

## ■ Diru-laguntza eskatzeko epeak

**II . ERANSKINA  
ENPRESAK**



Kontratazeko diru-laguntza eskatzea:  
Deialdia EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik  
**2015eko azaroaren 20ra arte**

**III . ERANSKINA  
ZENTRO  
LAGUNTZAILEAK**




Lan-eskaintza bildu, erregistratu eta/edo kudeatzeko  
diru-laguntzaren eskabidea:  
**2016ko urtarrilaren 2tik 29ra bitartean**





## Diru-laguntzak ordaintzea

Enpresak



**1. ordaintzea: % 53,19**  
Kontratuak formalizatu ondoren (\*)

**2. ordaintzea: % 46,81**  
edo justifikazioari dagokion zenbatekoa (\*\*)

\* **Aurretik aurkeztu beharrekoak:** kontratuaren kopia eta senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, gehienez 10 egun balioduneko epean.

\*\* **Kontratuak justifikatzea:** amaierako memoria, bukatu eta gehienez hilabeteko epean, 2016ko abenduaren 20a baino lehen.

Zentro  
laguntzaileak



**Ordaintzea bakarra**  
Diru-laguntza emateko ebazpenaren  
ondoren







## Prozedura eta izapidetzea

Eskabideak izapidetzea



Eskabideak **aurkezten diren hurrenkeran** aztertuko dira, eta hurrenkera berean emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko baldintzak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako **funtsak amaitu arte**.

Izapidetzeko erakunde eskumenduna



Laneratzea Aktibatze Zuzendaritza

Ebazteko erakunde eskumenduna



Lanbideren Zuzendaritza Nagusia

Ebazpena



Gehieneko epea: **6 hilabete**, eskaera aurkeztu zenetik. Amaiera ematen dio administrazio-bideari

Errekurtsoa



Aukerako berraztertze-errekurtso **hilabeteko** epean edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa **bi hileko** epean.





## Prozedura eta izapidetzea

**Publizitatea**



EHAAn argitaratuko dira enpresa onuradunen zerrenda eta emandako zenbatekoak, hargatik galarazi gabe diru-laguntza emateko ebazpenak zuzenean eta banaka jakinaraztea.

**Jarraipena eta kontrola**



Lanbidek bere esku izango du ikuskapen- eta kontrol-jarduerak egitea, helburuak betetzen direla bermatzeko.

**Diru-laguntza aldatzea**



Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

**Konkurrentzia**



Bateraezinak kontzeptu bereko diru-laguntzekin, laguntzekin edo diru-sarrerekin. Salbuespen dira praktiketako kontratuetarako eta kontratu mugagabeetarako Gizarte Segurantzako kuoten hobariak.





## Prozedura eta izapidetzea

### Ez betetzea

Erakunde onuradunak egonez gero Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1. artikuluan jasotako egoeretako batean, edo bete gabe utziz gero deialdi honetan jasotako eskakizunen bat, Lanbideko zuzendari nagusiak, hala badagokio, ebazpen bidez deklaratu du jasotako zenbatekoak eta diru-laguntza ordaindu zenetik sortutako interesak itzuli beharra.

**15 eguneko** epea emango da **alegazioak** aurkezteko.

Lanbideko zuzendari nagusiak abiaraziko du diru-laguntza itzultzeko prozedura eta, hala badagokio, ordaintzeko dauden zenbatekoak etengo ditu.

Epea igaro eta halakorik aurkeztu ez bada, edo, aurkeztuz gero, ezetsi badira, Lanbideko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. **Ebazteko** epea gehienez **12 hilabetekoa** izango da.

Ebazpenak iritsiz gero baldintzak bete ez direla, interesdunak dagozkion zenbatekoak itzuli beharko dizkio Lanbideri, **bi hilabeteko** epean gehienez ere, **Ebazpena jakinarazten** zaionetik hasita. Epe hori borondatezko epeztat joko da. Borondatezko epean dirua itzuliko ez balitz, premiamendu-bidera joko da.

### Itzultzea





## Prozedura eta izapidetzea

### Lehiakortasunari buruzko Europako arautegia

Deialdi honetako laguntzak, gazteak kontratatzeagatikoak alegia, bat etorriko dira «minimis»-arauarekin, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduak ezarri baitu (EBAO L352, 2013ko abenduaren 24koa), Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da eta. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari «minimis» erako laguntzetan emandako zenbatekoak ezin izango du gainditu 200.000 euroko kopurua hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den «enpresa bakarra» Erregelamendu horren 2.2 artikuluan.



# LANERATZEA AKTIBATZEKO ZUZENDARITZA

## DIRECCIÓN DE ACTIVACIÓN LABORAL

